

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 16a / 472. zenbakia



## Bihotzez

Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketak hamar urte

ZABALOTEGI: EKITALDI TXIKIETARAKO ARETOA/5 • MUSIKA: JATORKI ABESBATZA SANTA MARINAN/12



# CORSA BERRIA SRI



Zure burua auto honetan ikusi gura zenuke



## CORSA BERRIA SRI

1.4  
16 v  
90 zp

Opel-ek Corsa SRI berria aurkezten dizu.

Prestazio handiko diesel motorrak:

1.4 16v 90zp eta SRI ekipamendu osoa serieko ABSrekin.

Gutxitan izango duzu horrelako aukera bat.

Pasatzen utzi behar duzu?

Orain, prezio ikusgarrian:

1.665.000 pezeta.\* Serieko ABSrekin.

Corsa SRI berria, baita motor hauekin ere:

1.2 16v 75zp eta dieselean 1.7 16v 65zp eta 1.7 DTI 16v 75zp.

Guztiak ere serieko ABSrekin, hiru edo bost aterekin.

Diesela 1.7 DI 16v 65zp: 1.735.000 pezeta.\*\*

[www.opel.es](http://www.opel.es)

OPEL CREDIT



1, 2, 3 aukerak: beti auto berria izateko aukera errazena.

\* 10.007 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.4 16v 90zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plano barne.

\*\* 10.427 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.7DI 16v 65zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plano barne. Ikusten diren hagunak eta lainotako faroak aukerakoak dira.

OPEL

# TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA  
Zerbitzu Ofiziala

TAKOLO AUTOAK  
Araba Entobidea. Tfnoak. 943 77 30 10.  
ARRASATE




## ATREBENTZIAEZPADA/ Herri barruan zaintzen dozu belozidadia? Eta irtenuniak ze pentsatzen jatzu?



**ANDRES LÓPEZ**  
68 urte

Errespetatzen dot, baiña jeneralian ez dot uste errespetatzen danik, gazte jendiak, batez be. Irtenuniak biharrezkuak diela pentsatzen jat, eta eraginkorrrak die.



**BRIGIDO NARANJO**  
57 urte

Errespetatzen ahalegintzen naiz, danen moduan. Izan be, batzuetan errespetatzen dogu eta beste batzuetan ez. Irtenuniak ipintzia normala pentsatzen jat, eta eragiña daukela uste dot.



**FRANCISCO JAVIER MURILLO**  
27 urte

Bai, gehixenetan, behintzat. Baiña egixa esan, jeneralian ez dot uste errespetatzen danik. Irtenuniak ez jat bat be gustatzen, inkomoduak die, baiña efektibuak.



**BEGOÑA ANSOLA**  
62 urte

Errespetatzen dittut. Horretan oso formala naiz, ahalegintzen naiz, behintzat. Irtenuniak oso eraginkorra pentsatzen jat batzuetan dako, herrixan aurreratzen dabenik be badago-eta.



**KORO ALDAZ**  
48 urte

Normalian errespetatzen dot. Eta irtenuniak ondo pentsatzen jat, jentia azkar ibiltzen dalako kotxian, beti prisiakin. Baiña tristia da holako gauza bat ipiñi biharraren belozidadia jeisteko.



**NORA LASKURAIN**  
26 urte

Ahalegintzen naiz. Izan be, daren kotxe danekin errespetatzen ez bada, peligrusua izango litzake. Eta irtenuniak, ba... inkomoduak die, baiña efektibuak be badiela uste dot.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK MARTOKO AUZOKO ZIBURUAK** Hiru emakume etorri zaizkigu erredakziora Udaleran duten kexu baten berri ematera. Haien esanetan, Martokan, eskolako patioa ziburu batzuk apurtuta daude, eta hainbat umek min hartu dute. Behin baino gehiagotan adierazi dute hori Udalean, baina ez ei dute erantzunik jaso. Behintzat, apurtuta daudenak kentzea eskatzen dute. /MONIKA BELASTEGI

### ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

**Pertxa elkar-teak 25 urte**

Esteban Garmendiak, elkarteko presidentek, kontatu digu zelan ospatuko duten urteurrena.

KIROLA /10

**Bergara-Aloña zapatuan**

Bergarak Aloña Mendiren aurka jokatuko du Agorrosinen. Osoro kapitainarekin izan gara.

KULTURA /12

**Amodiozko gutunak**

Amodiozko Gutunen X. Berrigara Lehiaketan parte hartzeko oinarriak kalean dira

### ASTEKODATUA

1

**GRADU BAKARRA JOAN ZEN ZAPATUAN**

Egubakoitzean neguko lehen elur malutak egin ostean, zapatuan, gradu bateko hozberoa izan genuen. Horrez gain, astea euritsuia izan da. 143 litro bota du hilaren 6tik 13ra artean.

### BESTEKEKESANA

**“Munduko baserri onenak Debagoienekoak dira. Baserri barrokoak —arku handiekin eta**

**arkupeak zutabeekin, Durangaldean ikusten diren modukoak— Oñatik eta Bergarako baserrien anaia txikiak dira. Han jai ziren altuera handiko baserriak, harri ebaki onarekin egindako baserriak. Debagoienak, XVII. mendeko azkeneko hamarkadetan, euskal arkitekturako gailur diren baserri batzuk ekoiztu zituen. Kontua da Durangaldea dela Gipuzkoatik Bilbora arteko autobidetik ikusten den Bizkaiko zatia, baina arkuak duten baserriak desagertu egiten dira Larrabetzu herrira heldu eta gero.**

**ALBERTO SANTANA**  
Gara/01-11-04

### BERAIEKDIÑO/ Roberto Izagirre



*... eta ni konturatzeko*

**A**zkenaldi honetan, lana dela eta ez dela, egunero lau egunkariri pasadatxoa ematea egokitzen zait, eta eguna joan eguna etorri, gero eta harrigarriago geratzen naiz notizia berari halako interpretazio ezberdinak —kontrajarriak ere esango nuke— nola ematen dizkieten ikusita, bitxia benetan; baina gaurkoan baten jarrera aipatu nahiko nuke bereziki.

Izanean “vasco”tzat bere burua jo eta gure ingurune honetan, tamalez, salduena den horren (halako tiradizua edukiko ote dute ba eskelek?) jarrerak edo linea editoriala deritzon horrek aho bete hortz lagatzen nau. Sekula halakorik! Askotan aipatutako gezurra egia bihurtzen dela irakurri izan dut eta, akaso, horixe izango dute helburu; zeren aspaldi honetan, euskaldun edo euskaltzale kutxurik txikiena duen guztia hain entzuna den ETaren inguruan kokatzen baitute berehala, berdin dio

AEK, Gestorak, Elkarri, Zabaltzen edo obispo santua... Hori Madrilen bizi den norbaiti, akaso, saldu diezaioke, baina guri...

Honek guztiak zalantza bat piztu dit barrenean: gaur egun ez nator bat Euskal Herriko borroka armatuarekin, kontra

**“ETaren fronte bakezalekoa izango ote naiz? Bere burua “vascotzat” duen periodikoaren iritzi seguru baietz!”**

nagoela ere esan dezaket, arrazoi praktikoengatik batez ere, ez hainbeste etika edo moral kontuengatik —aspaldi konturatu bainintzen balore horiek bere komenientzien arabera manejatzen dituela botereak, herritar

arruntok bere apalean mantentzeko—. Uste dut bide horretatik kartzelak betetzen jarraituko dugula hainbat urtetan, ezer gutxi lortzearen truke. Baina, bestalde, buru-belarri sentitzen naiz euskaldun, eta hor nire koska: ETaren fronte baketsu edo bakezalekoa izango ote naiz?

Bere burua “vascotzat” jotzen duen periodikoaren iritzi seguru baietz! eta ni konturatzeko...

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA

Edu Mendibil

ERREDAKZIOA

Monika Belastegi,

Ahitzane Irizar

MAKETAZIOA

Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA

Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK

Luis Mari Agirre

Maitane Arizabaleta

Juan Martin Elexpuru

Miguel Angel

Elokoroberebizbar

LEGE-GORDAILUA

SS-50/91

ISSN

1130-6599

TIRADA

5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 16  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 17  
MOZOS, San Pedro 4. .... 943 76 12 15
- DOMEKA, 18  
MOZOS, San Pedro 4. .... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 19  
CAMACHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 20  
PUY, Barrenkale 25. .... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 21  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- EGUBAKOITZA, 22  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40
  - Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06
  - Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46
  - Ertzaintza .... 943 76 53 40
  - Osasun Etxea .... 943 76 24 40
  - Asepeyo .... 943 76 16 43
  - Pakea .... 943 76 13 49
  - Angiozarko medikua .... 943 78 90 27
  - Antzuolako medikua .... 943 76 62 23
  - Odol emaleak .... 943 76 16 24
  - Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak. .... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00
  - Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46
  - Udal Artxiboa .... 943 77 91 32
  - Igerilekuak .... 943 76 20 51
  - Kultura Etxea. .... 943 77 91 58
  - Liburutegia .... 943 77 91 62
  - Kirolegia .... 943 76 56 41
  - Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epäitegia .... 943 76 14 92
  - Erregistroa .... 943 76 13 15
  - Jardun .... 943 76 36 61
  - Idolaz .... 943 76 65 08
  - Jubilatiuen Etxea. Bergara .... 943 76 21 40
  - Antzuolako erretiratuak elk. .... 943 76 62 71
  - Postetxea .... 943 76 26 85
  - Bedelkar .... 943 76 04 68
  - Akulu AEK. .... 943 76 05 18
  - Udal euskaltegia .... 943 76 44 53
  - Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |   |   |
|---|---|
| <b>Santa Marina</b><br>Domekak:<br>11:30, 13:00.<br>Zapatuak: 19:00.<br>Lanegunak: 19:15. | Domekak: 10:30.<br><b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorenzo</b><br>Zapatuak:<br>20:00. |
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30, 12:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:00.        | <b>Angiozar</b><br>Domekak:<br>11:30.<br><b>Moja</b><br><b>Zaharrak</b><br>Lanegunak: 8:00.           |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:30.<br>Zapatuak: 19:00.                                     | <b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 10:30.   | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>09:00, 11:30.  |
| <b>Ubera</b><br>Domekak:<br>10:30.  | Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.  |
| <b>San Prudentzio</b>   |   |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

- 1952KO KINTOAK**  
1952ko kintoek (1931n jaiotakoek) anaia arteko eguna ospatuko dute azaroaren 17an. Txartelak Zumelaga jatetxean edo Irrintzi kafetegian.
- 1938AN JAIOTAKOAK**  
1938an jaiotako bazkaria azaroaren 17an Pertxan. Izenematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki).
- 1955EAN JAIOTAKOAK**  
1955ean jaiotako afaria azaroaren 17an Zumelaga jatetxean. Izena ematea Frontoiko tabernan.

- 1934KO KINTOAK**  
1934ko kinto bazkaria azaroaren 24an Torrekua jatetxean. Izenematea (2.000 pezeta) jatetxean bertan.

- 1944AN JAIOTAKOAK**  
1944koen afaria azaroaren 24an Azpeitxi jatetxean. Aurretik meza Santa Mari-nan, 19:00etan. Izenematea Sanchez ile apaindegian.

- 1957AN JAIOTAKOAK**  
1957koen urteroko ospakizuna azaroaren 24an. Izena ematea Intxorta tabernan.

- 1950EAN JAIOTAKOAK**  
1950eko afaria abenduaren 1ean Tartufo jatetxean. Izena ematea Kutxan (2.000 pezeta) azaroaren 27ra arte.

**JARDUNENAGENDA**

- BAZKIDE TXARTELA**  
Gaztetxoek bazkide txartela egiteko aukera dute oraindik. Argibideak: 605 71 24 69.

- ASTEBURUKO EKINTZAK**  
Zapatu arratsaldean gaztetxoendako mahai jokoak eta jolasak kartzelan. Domekan, berriz, *Dirty dancing* filmaren emanaldia 17:00etan.


**URBANOENORDUTEGIA**

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoila (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Elexpuru eta Mozos idazleen proiektuei laguntza**

Juan Martin Elexpuru eta Iñaki Mozosek aurkeztutako proiektuei laguntza ematea erabaki zuen Kultura Sailak 1991ko azaroan. Mozosek XVIII. mendeko *Jean de Paris* pastoralari buruzko ikerketa egin zuen, eta Elexpuru *Alpeen itzalpean* bidaia liburua argitaratu zuen 1993an.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Subalinddara"*

1. Sugandila.
  2. Geldigaitza, ipurtarina, geldi egon ezin dena. Umeen inguruan, batik bat.
- Geldik egon ari, subalinddarioi.



**ASTEKOFILMAK**

**'MOULIN ROUGE'**

**ZUZENDARIA:** BAZ LUHRMANN. **AKTORE-  
AK:** NICOLE KIDMAN, EWAN MC GREGOR,  
JOHN LEGUIZAMO, JIM BROADMENT.

**HARIA.** 1899. urtean Parisen girotuta, musikal klasikoak eta klasiko bihurtu diren kantuak uztartzen dituen filma. Amodiozko istorio hunkigarri hau xehe-xehe filmatu dute.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedades aretoan. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

**PUNTAUZIOA:** ●●●●●

**'DORAEMON'**

**ZUZENDARIA:** TSUTOMU SHIBAYAMA.

**HARIA.** Gaztetxoek *Doraemon* katua ezagutzen dute telebistan ikusteagatik, batik bat. *Doraemon* XXII. mendeko katua dugu eta bere poltsiko magikoan era guztietako asmakizunak errotan ditu, tartean denboraren makina. Manika horri esker edozein garaira bidaiatzeko aukera izango dute *Doraemon*-ek eta bere lagunak.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Zapatuan eta domekan 17:00etan.

**PUNTAUZIOA:** ●●●●●

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguena, 8	<b>1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 10	<b>15°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>143 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	15 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 8	15 °C	8 °C	40,1 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 9	5 °C	2 °C	30,2 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 10	8 °C	1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 11	12 °C	2 °C	1,9 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 12	11 °C	3 °C	15,1 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 13	12 °C	7 °C	56,4 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ETXEPARE-BILINTX  
LIBRYDENDA**



**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA



**ERABERRITZEA/** Zabalotegi aretoa egokitzeko behin betiko proiektua eginda dago

# Zabalotegi aretoa ekitaldi txikietarako egokituko dute, 130 lagunendako tokiarekin

MONIKA BELASTEGI

Zabalotegi aretoa eraberritzeko eta itxuratzeko proiektua aurrera doa. Behin betiko proiektua Udalean dago. Proiektu horren arabera, berri ostean, formatu txikiko ekitaldietarako erabiliko da aretoa, eta 130 lagunendako lekua izango du.

Denboraldi batez geldirik egon eta gero, Zabalotegi aretoa eraberritzeko proiektua esku artean du berriro Udaleko Kultura Sailak.

Behin betiko proiektu tekniko Udalean dago, eta Tekniber enpresak egin du. Behin betikoa diogu proiektuari hainbat aldaketa egin zaizkiolako.

Duela bi urte inguru egin zuten lehenengo proiektua: Zabalotegi aretoa erabilera askotariko areto gisa zegoen aurrez ikusita, eta besaulki-patioan eserlekuak ipini eta kentzekoak izatea, beharren arabera. Lehenengo proiektu horren berri hainbat kultura talderi eman zitzaion, Orfeoia, Taun-Taun eta Aritzeta, esaterako, asmo, informazio eta beharrak trukatzeko asmoz.

Hala ere, proiektu horrek aurrera ezin izan duela egin azaldu du Nere Amaia Zabala Kultura zinegotziak, "kendu eta ipintzeko aulki sistema horrek ez zuelako indarrean dagoen legedia betetzen. Hori dela eta, proiektuari aldaketa nabarmena egin beharra egon zen: besaulki-patioan eserleku egonkorrak jartzea. Eta aretoa egokitzeko asmoarekin aurrera egiteko, aldaketa hori onartu behar izan dugu".

## 130 LAGUNENDAKO TOKIA

Esan bezala, behin betiko proiektua Udalean dago. Zabalotegi are-



MONIKA BELASTEGI

Areto egokirik ez dagoelako atzera bota behar izaten dituzten hainbat emanaldirendako irtenbidea izango da Zabalotegi aretoa, Kultura zinegotzi Zabalen iritziz.

*Zabalotegi aretoa formatu txikiko ekitaldietarako erabiliko da egokitu eta gero*

toak behe solairua eta lehen solairua izaten jarraituko du. Behe solairuan aulki egonkorrak egongo dira eta lehen solairuan aulki ilara bat; guztira, 130.

*Besaulki-patioan eserleku egonkorrak izango ditu eta 130 ikuslerendako tokia egongo da*

Horrez gain, kamerinoak, duxak, komunak, leihatila eta bildegia ere izango ditu, baita beharrezkoak diren segurtasun neurriak ere. Egokitze obraren aurre-

*Obraren aurrekontua 30 milioi pezetakoa da; ekipamenduarena zehaztu barik dago*

kontua 30 milioi pezetakoa da, eta horri, oraindik zehaztu barik dagoen ekipamenduaren kostua gehitu behar zaio.

Erabilerari dagokionez, for-

matu txikiko ekitaldietarako erabiliko da: kontzertu eta antzerki txikietarako, esaterako. Orfeoia, Orfeoi Gazteak eta Aritzetak entseguetarako erabiltzen jarraituko dute.

Nere Amaia Zabalak esan duenez, kultura taldeekin ere bilduko dira hasierako proiektutik egondako aldaketen berri emateko eta behin betiko proiektua zein den adierazteko.

Lanak noiz hasiko diren ez dago oraindik zehazterik. Zabalotegi gastu hori 2002ko aurrekontuan jasotzea gurako luke.

## EAJ/EA eta Batasunak dispertsioaren aurkako mozioa adostu dute

MONIKA BELASTEGI

**Egubakoitzean egindako ezohiko osoko bilkuran Batasunak dispertsioaren eta azken atxiloketen inguruko bi mozio aurkeztu zituen. EAJ/EAK beste bi alternatibo aurkeztu zituen, eta horiek egin zuten aurrera.**

Iragan astean aurreratzen ginen moduan, Batasuna taldea bi mozio aurkezteko zen egubakoitzean ezohiko osoko bilkuran. Lehenengo presoen dispertsioaren ingurukoa izan zen, eta bigarrena Guardia Zibilak egindako azken atxiloketen ingurukoa.

Horien erantzun gisa, EAJ/EAK beste bi aurkeztu zituen.

Horrelako kasuetan, mozio alternatiboak dira lehenengo bozkatzen direnak, eta onartuz gero, bilkura eragin duen mozioa baztertu egiten da.

Lehenengo mozioaren kasuan, hau da, dispertsioaren ingurukoan, EAJ/EArenek aurrera egin zuen. Batasunaren aurkako botoak eta EAJ/EArenek parekatuta geratu baziren ere, EAJ/EAK onartu egin zuen Batasunaren puntu bat gehitzea idatzari.

Mozioak jasotzen zuen, besteak beste, dispertsio politikare-

kin amaitzea, presoak espetxe hurbilenetan izatea, eta akordio horien berri Espainiako eta Frantziako estatuetako gobernuei jakinaraztea.

### BIGARREN MOZIOA


Bigarren mozioan ere EAJ/EArenek egin zuen aurrera, Batasuna eta PSE-EE abstenitu egin zirenetan. Onartutakoak zortzi puntu ditu eta Eusko Jaurlaritzak onartutako bera da. Hau da, alde bate-tik, indarkeria uzteko eskatzen dio ETari, eta bestetik, jarrera aldaketa bat eta elkarrizketarako apustua egitea ere eskatzen dio Espainiako gobernari.

## Antxon Sasiain bergararra La Santé-n espetxeratu dute

Antxon Sasiain gazte bergararra atxilotu zuen joan den egubakoitzean, hilak 9, Béziers-en, (Frantzia hegoaldean) Terrorismoaren Kontrako Dibisio Nazionalak.

Joan den martitzenetik, hila-ren 13tik, hona Parisko La Santé kartzelan dago. Laurence Le Vert epaileak agindu zuen Sasiain atxilotzea, honako kargu hauek leporatuta: armak legez kanpo edukitzea, terrorismoa helburu duten gaizkileekin aritu izana, eta agiri faltsuak izatea, dokumentazioa Jesus Luis Pérezen izenean zuen-eta.

Bestalde, lau urte zeramatzan Sasiainek herritik kanpo.



Antxon Sasiain gaztearen atxiloketa dela-eta, ehun eta berrogeita hamar lagun inguruk manifestazioa egin zuten zapatu arratsaldean herriko kaleetan barrena.





Urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, Bergarako UNEDen historia batzen duen liburua aurkeztuko dute.

ARTXIBOA

**HEZKUNTZA/** 2001-2002 ikasturte hasiberrian hogeita bost urte bete ditu ikastetxeak

## Ikasturte hasiera ekitaldia egingo du gaur UNEDek

MONIKA BELASTEGI

Bergarako UNEDek ikasturte hasierako ekitaldi akademikoa egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan Udaleko osoko bilkuren aretoan. UNEDek 25. urteurrena bete du ekainaren 25ean, eta ekitaldian, lehenengo promozioko hainbat ikasle ere omenduko dituzte.

Bergarako UNEDek 2001-2002 ikasturte hasierako ekitaldi akademikoa egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, udaletxean, osoko bilkuren aretoan, hain zuzen ere.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta aurkezpena Vicente Huici ikastetxeko idazkariak egingo du. Aurkezpenaren ostean, Jaime Montalvok, UNEDeko errektore ohi eta CESeko (Kontseilu Ekonomiko Soziala) presidentea

hitzaldia eskainiko du. Moltalvok hitzaldian jorratuko duen gaia negoziazio kolektiboaren oraina eta geroa da.

Orain arte aipatutakoez gain, Juan Jose Alvarez Bergarako UNEDeko zuzendariak, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak, Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusi eta Bergarako UNED Ikastetxe Elkartuaren Patronatuko presidentea eta Miguel Angel Sebastian Akademia Antolakuntza eta Irakasle gorako Errektoreordeak hitz batzuk egingo dituzte.

Horrez guztiaz gain, eta urteroko ohiturari jarraituz, azken ikasturtean ikasketak bukatu dituzten ikasleei diplomak banatuko dizkiete.

Gainera, "Wonder Brass Quintet" musika taldeak emanaldia eskainiko du, eta baita "Umore Ona" taldeak ere.

### 25. URTEURRENA

Bergarako UNED 1976ko ekainean ireki zuten. 1976ko urritik 1977ko ekainera artekoa izan zen lehenengo ikasturtea. Aurtengo ekainean, beraz, hogeitabost urte bete ditu, eta hasi berri den 2001-2002 ikasturtea, hogeita bosgarrena izango da.

Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte ikasturtean zehar. Lehenengoa gaurko ekitaldian: lehenengo promozioko 25 ikasle eta hainbat irakasle ere omendu egingo dituzte osoko bilkuren aretoan.

Horrez gain, beste ekitaldi batzuk ere izango dira, urteurrena ospatzeko liburu baten aurkezpena, esaterako. Jose Luis Apraiz UNEDeko historia ikasle izandakoak, Bergarako UNEDen hogeita bost urteak liburu baten bildu ditu, eta urtarrila edo otsailean aurkeztuko du.

## LABUR

### Abizenaren grafia gazteleratik euskarara aldatzea lehen baino errazagoa da

Abizenaren grafia gazteleratik euskarara aldatzeko eman beharreko urratsak lehen baino errazagoak dira. Aldaketarako eskaria norbera erroldatuta dagoen Udalarari dagokion Erregistro Zibilean egin behar da. Bergararron kasuan Epaitegian dago Erregistro Zibila.

Erregistro Zibilean ematen duten eskari-orria bete behar da, eta ondorengo hiru agiriak ere eraman behar dira: jaiotza-ziurtagiri literala, errolda-ziurtagiria eta nortasun agiriaren fotokopia bat.

### Aurten ere bost sari banatuko dituzte Gabonetako eskaparate lehiaketan

Bergarako merkataritza-establezimendu guztiak aintzakotzat hartuko dira lehiaketan, aurrez izena eman beharrik gabe. Hala ere, parte hartzeko, abenduaren 10 eta 27 bitartean (biak barne) egon beharko dute prest eskaparateak.

Sariak ematerakoan kontuan hartuko da publizitate-mezuari irajonak, orijinaltasuna eta eraginkortasuna, eskaparatearen kalitatearekin batera. Bestalde, eskaparateetan establezimenduan saltzen diren ohiko artikulua agertu beharko dira. Horrez gain, apaintzeko gorosti, goroldio, erratz eta izei naturala ez erabiltzea eskatzen dute antolatzaileek, Bedelkarrek eta Udalak. Bost sari egongo dira: 25.000 pezeta eta garaikurra izango du bakoitzak, eta sarituen izenak abenduaren 21ean emango dituzte jakitera.



### Elgetarako irteera itxita 11 hilabeterako

Saihesbidean, Elgeta aldera hartzeko irteera itxita egongo da ibilgailuentzat hamaika hilabetez Eibar-Gasteiz autobideko lanak direla eta. Kontua da Uberako zubibidea eraiki behar dutela, eta horrek eragin du itxiera. Ondorioz, Elgetara joateko GI-627 irteera hartu beharko da, hau da, saihesbideko azkena, eta handik Elgetarako bidea.

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

BERGARAN  
BULEGO BERRIA



BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**BOLU**  
SUKALDEAK

Zure sukaldearen  
diseinua eta  
aurrekontua  
konpromiso barik

Bolu, 22-behea  
BERGARA  
Tel. eta faxa: 943 76 27 02



## ELKARRIZKETA

ESTEBAN GARMENDIA/PERTXA ELKARTEKO PRESIDENTEA

# “Batzarretan ez dugu inoiz planteatu emakumeak bazkide egiteko aukera”

MONIKA BELASTEGI

**P**ertxa elkarteak 25 urte beteko ditu aurten. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte elkarteak kideek. Esteban Garmendia elkartearen presidentea horren guztiaren berri eman digu.

**Pertxa elkarteak 25 urte beteko ditu aurten.**

Bai, abenduaren 8an, hain justu ere. Goizean meza egingo dugu eta eguerdian bazkaria. Hurrengo egunean, bazkideen emazteek izango dute bazkaria.

**Beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzue.**

Hainbat ekitaldi antolatu ditugu. Lehenengoa egubakoitzean, ahatekiaren inguruko hitzaldia eta dastatzea.

Baina ekitaldi gehienak datarren urtean egingo ditugu. Gutxienez bi hilean behin zerbait egin nahi dugu. Zerrenda luzea daukagu, baina oraindik gauzak ez daude guztiz lotuta.

**Zelan aldatu dira gauzak urte hauetan guztietan?**

Ez dut uste asko aldatu direnik. Kulturari dagokionez, beti lagundu izan dugu: bada, Pazkoetan, Kilometroak festan korrika egiten dugu, musika taldeei elkar-

tea uzten diegu eskatuz gero... Bazkide kopuruan gertatzen ari da aldaketa. Izan ere, jendea adinez aurrera doa, eta erretiratzean beste pertsona bati lekua utzi arren, ohorezko bazkide moduan geratzen dira, eta ondorioz kopuruak gora egin du.

**Bazkideak gora, hortaz. Eta emakumeak noizko?**

Denborarekin sartuko direla uste dut.


**Hogeita bost urte ez da denbora nahikoa?**

Bai, baina badakizu lehengo ohiturak zelakoak izaten diren. Emakumeak sar daitezke elkarteetan, baina sukaldean ez, ezta bazkide egin ere. Gure artean askotan berba egin dugun gauza bat da, baina batzarretan ez da inoiz proposamen hori egin.

**Noiz egon da elkartera joateko ohitura handiagoa, lehen ala orain?**

Lehen, agian gehiago. Baina orain ere mugimendu handia dago. Asteburuetan beteta egoten da, eta astean ere ibiltzen da jendea. Pertxa oso ondo dabil.

Uste dut elkarteek arrakasta baldin badute, lagun artean edo familian, baina etxetik kanpo, elkarteko aukera ematen dutelako dela. Gainera eroso da, bazkaria prestatu bai, baina gero ez delako harrikoa egin behar.



MONIKA BELASTEGI

*“Abenduaren 8an beteko ditu Pertxak 25 urte. Meza eta bazkaria izango dira egun horretan”*

*“Urteurrena datorren urte osoan ospatuko dugu. Hainbat ekitaldi ari gara antolatzen”*

*“25 urte hauetan elkarteetan ez da gauzak askorik aldatu; nahiko antzera dago guztia”*

## Bertso afaria

Abenduaren 1ean  
GORLAKO KANTINAN  
**Asier Otamendi eta Asier Arrieta**

Izena ematea, 3.000 pta.,  
627 818 212 telefonoan.

Izen emateko azken eguna,  
azaroaren 28a.



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

  
**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUA**



**IRAEGI  
ASEGURUA**

**AGENTEA**

Telefonoak: 943 76 23 30  
eta 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 15.30-19.30

**OHARRA BEZEROEI:**

*Ramon Maria Liliko bulegoan arazo teknikoak ditugunez, aldi baterako bulegoa BELANBIDE KALEAN izango dugu. Ongi etorri, denok.*

ORAIN  
Belanbide

Ramon  
Maria Lili

Ibargarai

Errotonda



## TORRONTEGI SAN LORENTZON

**J**oan zen zapatuan, ospakizun bikoitza izan zuten San Lorentzoko auzotarrek. Alde batetik, urteroko ohiturari jarraituz, gaztainerre jana egin zuten. Eta horrekin batera, bisita berezi bat ere izan zuten; izan ere, Bergara Bike taldeak antolatuta, Herri Torrontegi motorzale bizkaitarra herrian izan genuen. Arratsaldean gaztainerre janera hurbildu ziren ume eta gaztetxoan artean, batez ere, autografo mordo sinatu behar izan zuen. Ondoren, afaria egin zuten eta omenaldi txiki bat ere egin zioten Bergara Bike taldekoek; opari eta guzti joan zen Bakio aldera.



## ANGIOZARKO SAN MIGEL AGERTU DA

**I**railaren 29an zeruratu zuten Angiozarren, eta urriaren 20an agertu zen Nafarroa Behereko Landibarre herrian. 108 bat kilometro egin ditu aurten San Migelek. Yves Ondarsek topatu zuen Landaetxebarria bere baserriko zelai batean, erreka ertzean. Beraz, 150 euroko saria jasoko du baserriar horrek. Zorionak, bada, Yves.



### TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel. 943 76 39 53

## ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak  
Horma-armairuak  
Sarrailak  
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



## BANKINTER

**%3,5** etik aurrera lehen 6 hilabeteetan  
Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

\*Irekiera  
komisioa:  
%1.  
35 urte  
bitarteraino

## ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. BERGARA  
Tel. 943 76 20 42



**BERGARARRAK MUNDUAN**

**IGOR BASAURI ETA IONE VELASCO**

28 ETA 23 URTE / BUENOS AIRESEN BIZI DIRA

**“Argentinara etortzeko aukera eskaini zigutenean, ez genuen bitan pentsatu”**

EDU MENDIBIL

**D**enboraldi baterako atzerrira joateko intentzioarekin geunden, bizimodu eta herrialde berri bat ezagutzearren. Argentinara etortzeko aukera eskaini ziguten, eta bitan pentsatu barik etorri ginen”, diote Ionek eta Igorrek. Igorrek Beasaingo CAF enpresarako egiten du lan, eta 1998ko azaroa ezkerro Buenos Airesko tren-linea bateko trenen mantentze lanez arduratzen da. Ione, berriz, masaje eta ingeles ikasketak egiten ari da. Datorren urteko apirilera arte Buenos Airesen jarraitzeko asmoa daukate, eta gero, ziu-rrenik, Estatu Batuetara, Pittsburghera, hain justu, joango dira.

Argentina krisialdi ekonomiko larrian murgilduta dago: “Pixkanaka erdiko klasea desagertzen ari da eta herritarrak oso etsita daude, ez dirudi-eta egoerak hobera egingo duenik. Orain arteko saiakera guztiak porrot egin dute. Eta kalean segurtasun falta gero eta nabariagoa da”.

Buenos Airesen bizi dira Igor eta Ione. Argentinako hiriburuak 13 milioi biztanle inguru dauka.

Ioneren eta Igorren esanetan, “alde handia dago buenosai-restarren eta Argentinako beste lurraldeetakoekin artean, baina orokorrean gartsuak eta ahoberoak dira, onerako eta txarrerako. Oso irekiak dira argentinarrak. Ohitura handia dago norberaren etxean

*“Argentinako euskaldunek nahiko idealizatuta daukate Euskal Herria”*

edo lagunaren etxeetara joan eta luzaroan berba egiten jarduteko, eta okela errea eta matea tartean badira, hobeto”.

Euskaldun jatorriko argentinarrak asko dago han: “Maitasun handiz gogoratzen dute Euskal Herria. Egia esan, nahiko idealizatuta daukate. Euskaraz dakiten zenbait gazte ere badira eta hemengo euskal etxeetan euskarazko eta dantzako eskolak ematen dituzte. Euskal etxe askotan egon gara eta guztietan harrera beroa eskaini digute”.



**MINGAINARITIRAKA**



**Dani Jimenez**

**IGERILEKUETAKO BEGIRALEA**

**Dani Elorrixokua da eta 26 urte dauka. Jun zan ekainetik Bergarako igerilekuetako begiralia da. Irakasle ikasketak egin zittuan, eta heziketa fisikuan espezializatu zan.**

**Zer gustatzen jatzu gehixen zure lanian?**

Umiei ikastaruak emotia, asko gustatzen jat umiekin erlazonatzia.

**Eta gutxien?**

Batzutan, jende gutxi dagonian, aspertu egiten gara; eta horrelakuetan, eseri eta hantxe egon bihar izaten gara.

**Itsasua ala pizinia nahixago?**

Pizinia, lasaixagua da-eta; hondartzak estresantiak dira neretako.

**Zein erreskatauko ziñuke gustura?**

Pamela Anderson; berak ni erreskatzia be ondo egongo litzake.

**Eta zeini egingo zontsake aguadilla bat?**

Ministro batzuri, adibidez.

**Beste kirolrik praktikatzen dozu?**

Bai, igeri egittiaz aparte, korrika egittera be juten naiz noizian behin.

**Ikusteko kirol bat?**

Futbola eta saskibaloia.

**Janaririk gustokuena?**

Paellia.

**Eta edari bat?**

Coca-Cola.

**Urtaro bat?**

Uda.

**Bizitzeko toki bat?**

Elorrixon oso ondo bizi naiz, baiña Donostia eta Bilbo be gustatzen jat.

**Zer ez dozu aguantatzen?**

Biolentzia; oin Afganistanen gertatzen dabillenakin hasarratu egiten naiz.

**Kontaiguzu daukozun amets bat?**

Eskola batian irakasle lana topatzia, eta kirolari profesionala izatia.

AINTZANE IRIZAR

**NIREBIDAIAHURA / Idoia Ilarduia**

Ghana / 1997ko irailean

**L**agun batek izugarrizko gogoa zeukan “Afrika beltzera” joateko, eta harek bultzatuta, biok joan ginen. Antolatutako bidaia bat izan zen, 18 eguneko. Baina bigarren astean, Ghanakoa bertakoa zen gidarekin ibili ginen, laguna eta biok, gainerako bidaiariek alde egin zutenean.

Batez ere, kostaldean egon ginen. Hango hondartzak izugarri gustatu zitzaizkigun, idilikoak dira, baina itsasoa oso zakarra da, hango itsasoa ezin zara sartu. Dena dela, bertako jendea eta euren bizimodua ezagutzeko eduki genuen aukera izan zen bidaia-aren alde interesgarriena. Ghanatarrak oso irekiak, atseginak eta espresiboak dira. Kanean gindoazela edozeinek hitz egiten zigun, betiko lagunak izango bagina bezala.



*“Ghanatarrak oso atseginak, irekiak eta espresiboak dira”*

Bigarren astean gure gidaren herrixkan egon ginen, eta bertako jendearen bizimodua gertu-gertutik ezagutzeko aukera izan genuen. Konturatu ginen arraza zurikook ontzat hartzen gaituztela, beharbada, gehiegi. Horren inguruan badi-tugu hainbat anekdota. Adibidez, behin hileta batera gonbidatu gintuzten, eta hildakoaren senitartekoaren alboan eseri behar izan genuen; izan ere, zuri bat egoteak prestigioa ematen ei dio hiletari.

Gure gida hau herrixkako aberatsena zen; telebista, ura, denetik zuen. Telebista kalera atera eta herriko ume guztiak etortzen ziren ikustera.

Aipatu behar da, azkenik, hango jendea “ondo” bizi dela, ez dute, behintzat, goserik pasatzen. Ez dituzte, noski, guk dauzkagun erosotasun guztiak. Bidaia oso gomen-dagarria da; dena dela, gure esperientzia berezia izan zen, esan bezala, euren artean bizitzeko aukera izan genuelako.

*“Zuriok ontzat hartzen gaituzte, agian, gehiegi”*

AINTZANE IRIZAR



Ghanatarrekin bizitzeko aukera izan zuen Idoiak.

**FESTA KUBATARRA**


•Konbinatu Kubatarrak

•Kubako dantzarien ikuskizuna



Azaroaren 17an, zapatua,

23:00etan



**ARALAR TABERNAN Matxiategi 3, Bergara**

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Larkano**

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA. Tf. 943 76 25 03

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea 943 76 59 54 BERGARA



## ELKARRIZKETA

MIKEL OSORO/PREFERENTE FUTBOL TALDEKO KAPITAINA

# "Aurtengo ligan oraindik partidu oso bat ondo jokatzeari falta zaigu"

EDU MENDIBIL

**B**ergarak Aloña Mendiren aurka derbia jokatuko du zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Mahoneroek beharrezkoa dute garaipena sailkapenean gora egiteko. Osoro kapitaina (26 urte) itxaropentsu da biharko.

Oñatiarrak eta zuek uste baino txartoago hasi zarete ligan.

Etxeko partiduetan batez ere nahi baino okerrago ibili gara. Partidu bakarra irabazi dugu Agorrosinen, Pasajesen aurka, eta gainerako laurak berdindu egin ditugu. Mutriku eta Ordiziaren aurka ezin izan genion lortutako abantailari eutsi, eta bietan ere puntu bakar batekin konformatu behar izan genuen. Eta berdinketek atzera pausoa suposatzen dute hiru puntuko ligan. Aloña ere ez dabil oso ondo; gu baino hiru puntu gutxiago dituzte eta, gauzak horrela, partidu borrokatua izango da zapatukoa.

**Derbiak bereziak dira.**

Bai, partidu gogorak izaten dira, jokatzeko zailak. Aloña-Mendin, gainera, Bergarako hainbat jokalarari ari dira, eta euron-dako partidu berezia izango da biharko. Guk, hala ere, puntuak lortzeko premia daukagu, eta hiru



ARTXIBOA

puntuak eskuratzen ahaleginduko gara. Baina partidua irabazteko zelaian erakutsi behar da are-rioa baino hobea zarela.

**Zer nolako partidua egitea komeni zaizue?**

Gure jokoa egiten saiatu behar dugu, aurrean zein dugun kon-tuan hartzeke. Baloia lurretik jokatzen badugu, partidua gure

eskuetan izan dezakegu. Domekan, Zarautzen, momentu batzuetan joko ona egin genuen, baina oraindik partidu oso bat ondo jokatzeari falta zaigu.

**Liga amaieran non egongo da Bergara?**

Aurrean egotea espero dut. Amaierara arte mailaz igotzeko ilusioa edukitzea ondo legoke.

## FOTOKIROLA



## Herriko txirrinduzaleen afaria hilaren 24an

Bergarako txirrinduzaleek aurtengo denboraldiko azken irteera egin zuten Dorletara urriaren 28an. Denboraldia agurtzeko afaria antolatu dute azaroaren 24an Sirimiri jatetxean. Izena ematea San Martin plazako lokalean hilaren 19ra arte.

## FUTBOLA

### Peña Athleticen irteera Bilbora abenduaren 17an

Peña Athleticen abenduaren 16an Athletic-Rayo partidua ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera goizetik egingo da, 10:00etan, Lezamako instalazioak ikusteko. Bazkaria Bilbon egingo dute. Izena ematea Toki-Ona bodegoian abenduaren 2ra arte.

## SASKIBALOA

### Senior taldeak Kostkas izango du bisitari zapatuan

BKEko senior mailako saskibaloitzaileek Donostiako Kostkas taldearen aurka jokatuko du zapatuan Labegarietako Kirolegian, 16:00etatik aurrera. Azken jardunaldian David Urbinan zuzentzen duen taldea Elgoibar taldeari nagusitu zitzaion, 59-74ko emaitzarekin.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

## EMAITZAK

## A MULTZOA

Kanpazar Harrobia-Amilotx	4-3
Torrekua-Bar Ugarte	5-5
Bar Ganbara-Mongatxurak	2-9
Agirrebeña jate-Komando Piperrak	5-11
Biciprecisión Igartua-A Ze Flaxa	5-15
Eri-Kanpazar Harrobia	3-0

## B MULTZOA

Etengabe-Bar Bedarreta	1-16
Aterpe-T.H.T.	5-4
Vacalouras-Txipiron	4-4
Amoskibar-Bar Canalejas	4-4
Artekale pizzeria-T.H.T.	2-5
Aterpe-Bar Irubide	4-3

## C MULTZOA

Artusamak-Errotagain	0-1
Ortiz-Timofonika Team	5-1
Bildurbarek-Dedo Pafarru	0-3
Artusamak-Pagomendi	4-5
Aluminios Kresala-Ortiz	7-4
Bayer-Errotagain	5-7
Timofonika Team-Patxaran Team	8-4

## SAILKAPENA

## A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	18	6
2. Agirrebeña jatetxea	13	7
3. Mongatxurak	13	6
4. Bar Ugarte	10	6
5. Torrekua	9	7
6. Komando Piperrak	8	7
7. Eri	7	6
8. Kanpazar Harrobia	6	7
9. Biciprecisión Igartua	4	6
10. Amilotx	1	6
11. Bar Ganbara	1	6

## B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	18	6
2. Aterpe	18	7
3. Bar Canalejas	14	7
4. Vacalouras	11	6
5. Amoskibar	10	7
6. Irubide jatetxea	8	6
7. T.H.T.	7	7
8. Artekale pizzeria	6	7
9. Etengabe	0	7
10. Txipiron	-2	6

## C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	18	6
2. Dedo Pafarru	13	6
3. Artusamak	12	5
4. Aluminios Kresala	10	7
5. Bayer	9	7
6. Ortiz	6	6
7. Pagomendi	6	5
8. Patxaran	3	6
9. Timofonika Team	3	6
10. Bildurbarek	0	0

## PARTIDUAK

## ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Amilotx-Bicip. Igartua. Agirrebeña  
10:30: Agirrebeña-Torrekua. Amilotx  
18:00: Artusamak-Ortiz. Bar Bedarreta  
19:00: Bar Bedarreta-Vacalouras. Kanpazar  
20:00: Kanpazar-Bar Ganbara. Vacalouras

## DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Etengabe-Txipiron. Errotagain  
10:30: Errotagain-Dedo Pafarru. Bar Canal.  
11:30: Aterpe-Bar Canalejas. A Ze Flaxa  
12:30: A Ze Flaxa-K. Piperrak. Aterpe  
16:00: Artusamak-Timofonika. Bedarreta  
17:00: Bar Bedarreta-T.H.T. Artekale pizz.  
18:00: Artekale pizzeria-Amoskibar. Irubide  
19:00: Vacalouras-Bar Irubide. Pagomendi  
20:00: Pagomendi-Ortiz. Vacalouras

## DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Bar Ugarte-Eri. Patxaran Team  
12:30: Bayer-Patxaran Team. Eri

## ARGI IBILI!

## KANPAZAR TALDEARI ZIGORRA

Kanpazar Harrobia taldeari 3-0eko emaitzarekin galdutzat eman diote Eriren kontrako partidua, jokatzera ez aurkezteagatik. Horrez gain, hiru puntu galdu dituzte. Hurrengo baten horrelakorik errepikatzen badute, Kanpazar taldea txapelketatik kanpo geratuko da. Bestalde, Brigido Gonzalezek (T.H.T.) partidu bateko zigorra bete beharko du.

## GORA ETA BEHERA

## ERROTAGAIN ETA ERROTAGAIN

Errotagainen C multzoko lidergoari eutsi dio, azken jardunaldian Artusamak taldeari irabazi ostean (1-0). Bestalde, A multzoan, Komando Piperrak uste baino errazago irabazi zion Agirrebeñari (11-5).

## BILDURBAREK OPEL LAM ETA ETENGABE

Antolatzaileek Bildurbarek taldea kanporatu dute, azken partidua ez aurkezteagatik. Gutxi irau duen Bildurbarekekoek. Bestalde, Etengabek 1-16 gaildu zuen Bar Bedarreta B multzoko liderraren aurka. Gehiegizkoa.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

Bergara-Aretxabaleta  
Bigarren mailako kadeteak. Zapatua. 12:00. Ipintza.  
Bergara-Aloña Mendi  
Preferente maila. Zapatua. 15:30. Agorrosin.  
Bergara-Luberri  
Lehen mailako gazteak. Zapatua. 17:15. Ipintza.  
Bergara-Antzuola  
Neskak. Domeka. 10:30. Ipintza.  
Bergara-Ondarroako Aurrera  
Ohorez. mailako kadeteak. Domeka. 12:00. Ipintza.

## SASKIBALOA

Bergara-Kostkas  
Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kirolegia.  
Bergara-Ordizia  
Gazte mutilak. Zapatua. 16:00. Mariaren Lagundia.

## PILOTA

Bergara I-Elgeta (Infantilak)  
Bergara I-Elgoibar III (Infantilak)  
Bergara-San Esteban (Kadeteak)  
Bergara-Añorga IV (Gazteak)  
Bergara-Aurrera (Bigarren mailako seniorrak)  
Egubakoitzean, hilak 16, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

## EMAITZAK

## FUTBOLA

Zarautz 3 Bergara 1 (Preferente maila)  
Bergara 0 Ilintxa 1 (Lehen erregionala)  
Bergara 1 Mondragon 0 (Neskak)  
Bergara 4 Anaitasuna 1 (Ohorezko m. gazteak)  
Zestoa 1 Bergara 3 (Lehen mailako gazteak)  
Hondarribia 1 Bergara 1 (Ohorezko m. kadeteak)  
Soraluze 2 Bergara 0 (Bigarren mailako kadeteak)  
Bergara 4 Ilintxa 3 (Infantilak)

## ESKUBALOA

Legazpia 23 Bergara 23 (Senior mutilak)  
Bergara 19 Legazpia 12 (Gazte mutilak)  
Bergara 17 Donibane Lezo 12 (Kadete mutilak)

## SASKIBALOA

Elgoibar 59 Bergara 74 (Senior mutilak)  
Easo B 82 Bergara 36 (Gazte mutilak)  
Bergara 36 Iraurgi 51 (Kadete mutilak)

## PILOTA

Elgoibar I 15 Bergara II 18 (Infantilak)  
Elgoibar II 9 Bergara I 18 (Infantilak)  
Bergara 22 Zurriola 2 (Kadeteak)  
Intxaurren 11 Bergara 22 (Gazteak)  
Tolosa 9 Bergara 22 (Bigarren mailako seniorrak)  
Bergara 12 Amezketa 22 (Lehen m. seniorrak)





**NISSAN**

**PRIMERA.  
PROBA EZAZU. INFORMA ZAITEZ.  
ETA ONDOREN, ZU ZEU.**

**NISSAN PRIMERA. ORAIN,  
400.000 PEZETARAINOKO  
BEHERAPENAREKIN**

Ni ez naiz automobiletan aditua.  
Segurtasuna, bizi-kalitatea eta, gezurra  
dirudien arren, onena prezio hoberenean  
lortzen salatzen den pertsona naiz.  
Eta, hara, PRIMERA segurua da,  
erosoa eta erantzun ezin hobea du.  
Benetan diotsut, Nissan Primera automobil  
ederra da eta, nire ustez, beste inork ez dit  
horren pare eskaintzen.

**ERAMAN EZAZU ORAIN  
ETA EZ EZAZU ORDAINDU 2002A ARTE.**

**5 URTEKO  
BERMEA  
KM MUGA BARIK**

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate





Hogeita hamar gizon eta emakumek osatzen dute dute Bilboko Jatorki abesbatza

JATORKI ABESBATZA

Bilboko abesbatzak hamasei obra eskainiko ditu; ia guztiak autore euskaldunenak

## Jatorki koralararen emanaldia bihar, San Pedro parrokian

MONIKA BELASTEGI

**Bilboko Jatorki abesbatzak emanaldia egingo du, bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan. Hogeita hamar gizon eta emakumeren ahotsak osatzen dute taldea, eta hamasei obrako egitaraua eskainiko dute bi zatitan banatuta.**

Bihar, zapatua, Bilboko abesbatza bat izango dugu Santa Marina parrokian; Jatorki abesbatza, hain justu ere.

Jatorki Abesbatza Elkartea 1973. urtean sortu zuten, eta helburu nagusi bat izan du urte hauetan guztietan: euskal musika eta polifonia abestea. Baina baita abesbatzaren ezaugarriekin bat egiten duten naioarteko autore-

en obrak abestea ere. Eta urte hauetan guztietan egindako lanaren ondorioz, Bizkaiko Abesbatzen Elkartearen maila gorena lortu du.

Bi zuzendari izan ditu Jatorkik bere ibilbidean. 1998 urtera arte Andoni Arregi (izen ezaguna euskal musikan). Abesbatzak abesten dituen obretako batzuk, Arregik berak konposatutakoak dira. Arregiren ondoren, Marian Urkiolak ekin zion Jatorki zuzentzeari, eta gaur egun ere Urkiola da Bilboko abesbatzaren zuzendaria. Solfeo, piano eta harmonia ikasketak Bilboko Joan Krisostomo Arriaga Kontserbatorioan egin zituen. Gainera, abesbatza soprano gisa ere abestu izan du hainbat urtetan Andoni Arregiren zuzendaritzapean, eta 1991. urtetik Arregi 1998an hil arte, zuzendari ordea izan zen.

Sortu eta handik lau hilera eman zuen lehen kontzertua Jatorkik. Orduetik hainbat emanaldi eskaini ditu, eta baita hainbat kontzertu eta alardetan parte hartu ere.

### EUSKAL KANTAK

Euskal autoreen obrak izango dira nagusi bihar Santa Marina parrokian Bilboko abesbatzak egingo duen kontzertuan. Hamasei obra abestuko dituzte: T. Luis de Victoriaren *Ave Maria*; Aita Donostiren *Itsasoan*; I. Uruñuelaren *Maitia nun zira*; P. Soroza-balen *Nahi zu yayin, Maite* eta *Gabiltzan kalez kale*; J. Bustoren *Axuri Beltza*; J. Guridiren *Maitasun atsekabea*; T. Garbizuren *Atxia Motxia, Arantzazura, Xauli* eta *Lur berri*, eta A. Arregiren *Udaberriko goiza, Ene izar maitia* eta *Zutik. Agiña*.

### XABIER AMENABAR /JATORKIREN PRESIDENTEA

*"Jatorki abesbatzak %95 euskaraz abesten dugu"*

**Bilboko abesbatzarekin zatozen arren, bergararra zara.**

Bai. Duela 23 urte joan nintzen Bilbora. Ordura arte Bergaran bizi izan nintzen, eta gaztetxoak ez, baina nagusi-agoak asko ezagutzen ditut. Entrenadore ere aritu nintzen, futbolekin. Entrenatu nituen azkenek berrogeita gutxi urte izango dituzte gaur egun. **Bergarako abesbatzetan ere parte hartu izan duzu.**

Nire adineko hainbat eta hainbat bezala, Don Pedrorrekin hasi nintzen Santa Marian kantuan. Ondoren, 18-19 urterekin Don Nikomedesekin talde bat sortu genuen, *Lagun artea*, eta handik, Orfe-



oira pasatu ginen batzuk, Don Roman Oiarzabal zuzendari zela. **Bilbora joan bizitzera, eta nola hasi zinen Jatorkin?**

Taldeko kide bat ezagutu eta harek animatu ninduen, duela zortzi urte. Orain, bakar-laria naiz eta azken lau urteotan presidentea ere bai. **Bergaran emango duzuen kontzertuko ia obra guztiak autore euskaldunenak dira.**

Andoni Arregi, Jatorkiren sortzaile eta zuzendari izan zena, euskaltzale handia zen. Bera hil zen, baina Jatorkik oraindik ere haren eredu mantentzen du. %95 euskarazko kantak abesten ditugu.

## Amodiozko Gutunen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

MONIKA BELASTEGI

**Jardun Euskara elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen X. Berrigara lehiaketan parte hartzeko oinarriak kalean daude. Aurten, Berrigara sariaz gain, Goiena saria ere egongo da.**

Martxan da Amodiozko Gutunen X. Berrigara Lehiaketa. 1987. urtean edo lehenago jaiotako edozein pertsonak parte har dezake. Lanek gutun forma izan behar dute eta DIN A-4 orritan eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Luzerari dagokionez, ezingo dira bi orrialde baino gehiagokoak izan.

Lanean ez da egilearen datu-rik jarriko, lema bat bakarrik. Egilearen datuak (izen abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren lema) gutun-azal itxi batean sartuko dira eta gutun-azal horren kanpoaldean lanean jarritako lema bera jarriko da. E-mailez bidalitako gutunen kasuan,

gutuna fitxategi batean bidaliko da, "gutuna" izenarekin eta egilearen datuak, "egilea" izena duen beste fitxategi batean.

Lana (originala eta hiru kopia) eta egilearen datuak dituen gutun-azala, beste gutun-azal handiago batean sartuta, honako helbide honetara bidali behar dira: Amodiozko Gutunen X. Berrigara lehiaketa, Jardun Elkartea, Juan Irazabal, z/g (Kartzela zaharra). Posta elektronikoz: [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com). Azken eguna urtarrilaren 9a izango da.

### BERRIGARA ETA GOIENA SARIAK

Berrigara sariaz gain, Goiena sariak ere izango dira aurten. Lehenengo saria, 450 euro eta afaria eta gaua Hotel Mondragonen (Goiena saria). Bigarrena, 240 euro eta afaria Hotel Mondragonen (Goiena saria). Bergararen onenaren saria, 150 euro. Deba-goienako eskutitz onenaren saria, 150 euro, eta irakurle gazteek emandako saria, Xabier Diaz de Zeriren eskultura.

### KULTURAPILULAK

#### Santa Zezilia ospatzeko kontzertua eskainiko du Musika Bandak domekan, pilotalekuan

Hilaren 18an, Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari taldeak emanaldiak eskainiko dituzte Santa Zezilia ospatzeko. 9:30ean meza egongo da San Pedro elizan. Ondoren, 11:00etan, Udal Txistulari Bandak kalejira egingo du, eta baita Udal Musika Bandak ere, 11:30ean. 12:30ean, Bandak kontzertua emango du Udal Pilotalekuan. Bost obra eskainiko dituzte: *La millor terra del mon*, *Finlandia*, *Ezpatadantza de Amaia*, *La Quintessenza* eta *Annie*.



#### Begarako Orfeoia Alacanten izan da

Pasa den asteburuan Cocentina herrian izan zen Bergarako Orfeoia, Certamen Coral Fira de Tots los Sants-en, hain zuzen. Bost talde aritu ziren lehiatzen eta bergararrek ez zuten lehenengo hiruren artean egotetik izan. Bigarrenez joan da aurten Orfeoia Alacantera; martxo aldera Novelda herrian izan zen, eta lehen saria jaso zuen han. /M.B.



E, TXO!

**KUADRILLATEGIREKIN  
GRAFFITI TAILERRA**

Joan den zapatuan hasi zuten Kuadrillategikoek graffiti tailerra, eta bihar, zapatua, jarraituko dute; Zabalotegin, Udal Euskaltegian, jarri dute hitzordua, arratsaldeko 15:30ean. Joan den zapatuan, 30 bat lagun elkartu ziren teknika hau ikasteko asmoz. Biharko saioan, joan den astean ikasitakoa sakonduko dute. Hortaz, badakizue, animatu, eta zapatuan, denok Zabalotegira!

**IKASLE GAUA USURBILEN**

Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta, Ikasle Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Usurbilen, *Gau ilunean, bidea argitzen ikasle alternatibaz* lelopean. 19:00etan manifestazioa egingo dute, eta ondoren ekitaldi politikoa egongo da. Gauean, berriz, Ikasle Gauda, honako kontzertu honekin: RIP, Flitter, La Polla, Su ta Gar eta Berri Txarrak. Kontzertura joan nahi duenak Arrano tabernan ditu sarrerak salgai, 1.500 pezetan. Usurbilen ere egongo dira sarrerak, baina 2.000 pezetan.

**SEXOLOGIA IKASTAROA**

Eibarren izango da ikastaro hori, Ikasgu Nagusian. 2002ko urtarrilean hasiko da, eta abendura arte iraungo du. Udako Euskal Unibertsitateak antolatu du, eta jendeak sexualitatea hobeto ezagutzea da euren helburua. 105 eskola-ordu teoriko izango ditu ikastaroak. UEUko kideek 85.000 pezeta ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, berriz, 100.000 pezeta. Azaroaren 23an, egubakoitza, bukatzen da izena emateko epea.

**GUREGAIK/ LAN BILA INTERNETEN**

**Sakatu ezazu hemen lan bila bazabiltza**

AINTZANE IRIZAR


**Jolasean aritzeko, lagun berriak egiteko, erosketak egiteko, eguneko prentsa irakurtzeko... gero eta gauza gehiagotarako erabiltzen dugu internet. Lana topatzeko ere ematen digu aukera.**

Egunkarietako iragarkiak irakurri edo toki guztietara curriculumak bidaltzeaz gain, badaude lana topatzeko beste bide batzuk ere. Internetek, esaterako, beste aukera bat ematen dio lan bila dabilenari. Horretarako hainbat helbide interesgarri ditugu. Web orrialde horietan, lan eskaintzez gain, lanarekin lotutako hainbat kontu ere eskaintzen diote

informazio bila dabilenari. Esate baterako, lanbide konkretuei buruzko informazioa eskaintzen dute, langabezia tasa eta okupazioari buruzko datuekin. Aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dute, baita ikastaro, beka eta abarri buruzko informazioa ere.

**HAINBAT HELBIDE**

Langai Euskal Lan Zerbitzuak badauka web orrialde bat, www.lanbide.net, hain zuzen ere. Orrialde horrek, gainera, Langain izena emateko aukera eskaintzen digu. Beste orrialde interesgarri bat www.ivap.org da, administrazio publikoko lan-eskaintzak topatuko ditugu horixe. *Hispanista* eta *Google* ere aukera interesgarriak dira.



Aukera ugari dago interneten lana bilatzeko.

**LOTSABARIK/ Peru Azkarate**

**“Harrikoa egitea oso taktika ona da”**

AINTZANE IRIZAR

**Peruk Batxilergoa ikasten dihardu, baina lanean ere hasi da dagoeneko. Pizzak banatzen ibiltzen da etxerik etxe astebururo. Batez ere, saskibaloia du gustuko, baina baita patinetean ibiltzea ere.**

- **Txikitan, zer izan nahi zenuen?**  
Arotza izan nahi nuen txikia nintzenean; aitona eta osaba ere arotzak direla-edo izango dela uste dut.
- **Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?**  
Oraingoz, behintzat, ez dut planteatu ere egin zelan egongo

- naizen hemendik 20 urtera; ez dakit, beharbada, ezkondu-edo egongo naiz? Ez dakit.
- **Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?**  
Ikasteko, ikastolan ondo ibiltzeko esaten didate behin eta berriro.
- **Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.**  
Harrikoa egitea; kontua da harrikoa egitearekin “pelota” sartzea, eta gero kalera alde egiten dut.
- **Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?**  
Lagunekin ondo konpontzeari, ondo egoteari, baita ikasketei eta osasunari ere.
- **Zure bertute bat?**

- Alaia naizela.
- **Eta hutsune bat?**  
Batzuetan, haserretzen naitzenez, oso jenio txarrekoa naiz.
- **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**  
Begiak.
- **Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**  
Aurpegiari, eta, batez ere, begiei.
- **Zer egiten duzu seduzitzeko?**  
Nik ez dut ezer egiten seduzitzeko; ni naizen modukoa azaltzen naiz beti.
- **Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?**  
Fantasia sexual mordo bat daukat, baina ez dizut bat bera ere kontatu behar.



**ADINA:** 15 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa • **ZALETASUNAK:** Saskibaloia eta patinetean ibiltzea • **LIBURU BAT:** Ez du irakurtzen • **FILM BAT:** 'Kids' • **MUSIKA TALDEA:** Fly Shit • **KIROL TALDEA:** Reala

**TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez**





## ZAHARREN ETXETIK



AINTZANE IRIZAR

Antzuola eta Bergarako erretiratuen hamabostaldiaren barruan San Joxepen antolatutako dantza ekitaldi bat.

## Kultur Hamabostaldiaren balorazio positiboa egin dute erretiratuek

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak kideak oso pozik daude joan zen urriaren 27an amaitu zen Kultur Hamabostaldiak jasotako erantzunarekin. Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentek prestatutako programaren kalitatea, eta bereziki hitzaldien eta mahai-inguruen maila altua goraipatu ditu.

Bergara eta Antzuolako erretiratuek bosgarren urtez antolatu dute Kultur Hamabostaldia. Aurtengo ekitaldiaren leloa "Nagusien partaidetza" zen, eta urriaren 8tik 27ra bitartean hainbat ekintza antolatu zituzten gai horren inguruan.

Tomasa Zabaletaren arabera, "helburu nagusia gaurko gizartean erriratuok daukagun zereginaren inguruko erreflexioa egitea zen. Bizi iraupena handituz doa eta, aldi berean, erretiratze adina aurreratuz. Horrek erretiratuon partaidetzaren gaia dakar

atzetik. Gizarteari zer eskaini badaukagu, eta hori da aztertu nahi izan duguna".

### MAILA HANDIKO HIZLARIAK

Kultur Hamabostaldiak benetan programa erakargarria izan du martxan jarri zenetik. Aurten ere maila handiko hizlariak eka-

rrit dituzte, Javier Elzo soziologoa, Mercé Pérez, Bartzelonako Diputazioko psikologoa, Javier Yanguas, Matia Fundazioko Ikerketa eta Garapenerako zuzendaria, edota Maximo Goikoetxea Diputazioko Gizarte Zerbitzuen departamentuko kidea. Hitzaldi eta mahai-inguruez gain, ikasleei zuzendutako erredakzio lehiaketa, pertsona nagusien irudien gaineko argazki lehiaketa, irteera kulturalak edota Edu Muruamendiarazen dantza ikuskizuna antolatu dituzte Hamabostaldiaren barruan.

Tomasa Zabaletak emandako datuen arabera, antolatutako hitzaldietan, batez beste, 100 lagun inguru biltzea lortu dute, "adin ezberdinetakoak gainera. Gure helburuetako bat belaunaldien arteko harremana sendotzea da eta hamabostaldiak horretarako ere balio izan du. Orain dela bost urte Hamabostaldiaren lehenbiziko leloarekin adierazi genuen bezala, gizartean partaide izatea nahi dugu. Eta etorkizunean ere bide horretatik jarraitu nahi dugu".

### Gipuzkoan kasu bakarra

Gipuzkoan ez dago Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatzen duten moduko beste ekitaldi sortarik. Zabalek dioenez, "kasu bakarra gara probintzian eta pozik egoteko arrazoiak daukagu. Ez da batere erraza horrenbeste jenderen partaidetza lortzea. Lanaren ondorioa da guztia". Aurten, aurrekontua 2 milioi pezetakoa izan da.



### Mizpirualdeko astearen amaiera bihar

Bihar, zapatua, Mizpirualdeko astea amatuko da. Astean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, gaztaina jana (argazkian), txapelketak edota dantza eta musika saioak tartean. Zapatuan Orfeoiko hainbat kidek lagundutako meza izango da kapera 11:45ean, Alai taldearen emanaldia 13:00etan, eta bazkalostean Xamatzen saioa eta dantzaldia egongo dira.

## ZAHARREN AHOTIK

### Mila Lezama

MIZPIRUALDEKO BIZILAGUNA

Sopuertakoa jaiotzez, 1950eko hamarkadan etorri zen Bergarara. Bere gurasoek Estazioko kantina zeukaten. Urte eta erdi darama Mizpirualden.

Erresidentzian beti laguntzeko prest omen zaude.

Niri izugarri gustatzen zait ahal dudan gauza guztietan laguntzea, sukaldeko lanetan batez ere. Horrela eguna motzagoa egiten zait. Erresidentzian eskulan, yoga eta jostungintza ikastaroetan ere banabil. Gustura joaten naiz. Ezagutzen zenituen Erresidentziako lagunak?

Gizonak bai, nire gurasoek Estazioko kantina izan zuten urteetatik. Ni 30 urtez Lasagabasterren lanean izan nintzen, eta jende asko ezagutzen dut Bergaran.



Udazkena eta negua gogorragoak egiten dira Erresidentzian?

Urte sasoi horietan ere ekitaldiak izaten dira eta ez gara aspertzen. Hala ere, eguraldi txarra izaten denez, ez naiz paseatzera irteten eta pena da. Udako irteerak eta paseoak faltan botatzen ditut.

PANA DE ROKUA  
TATETXEAL

Asteburuetan bertako  
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

etxalar

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

Radio  
Bergara

Etxetresna elektrikoak  
Sakelako telefonoak  
Lanparak  
Opariak

San Pedro 25  
BERGARA  
943 76 19 89

IBARGYREN  
PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako  
nekazal produktuak

Biona  
BANATZAILEA

San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79



**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein plazatako zoruan dago irudi hau eta zer adierazten du?

**GALDEDEBALDE**

- |  |  |   |
|--|--|---|
| <p><b>1.</b><br/>Zein urtetan ireki zuten Bergarako UNED ikastetxea?</p> <p>A/ 1976an.<br/>B/ 1975ean.<br/>C/ 1981ean.</p> | <p><b>2.</b><br/>Jatorki abesbatzaren presidentea bergarar bat da. Zein?</p> <p>A/ David Azurtza.<br/>B/ Joxe Arrieta.<br/>C/ Xabier Amenabar.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zein da preferente mailako Bergara futbol taldeko kapitaina?</p> <p>A/ Josetxo Lizarralde.<br/>B/ Mikel Osoro.<br/>C/ Iban Franco.</p> |
|--|--|---|



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**DIONI ALKORTA** arendako izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Dioniri!  
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: 1050ean / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-C.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Carbonell olio**

0,4 gradukoa, litro bateko botila.

**2,38 €**

396 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**BERGARAKO ZUHAITZAK**

**Magnolia**

*Magnolia grandiflora*

MAITANE ARIZABAETA

**H**ogeita bost metro har ditzakeen *Magnoliaceae* familiako hosto iraunkorreko zuhaitza. Landare loredunean artean, hau da familia zaharrenetako bat.

Zurtoina motza, gris iluna eta zartatua du, eta 1,5 metroko diametroa har dezake. Hosto bakun, larrukara eta txandakatuak dituzte, berde distiratsuak gainaldetik eta herdoiltsuak azpialdetik. Loreak usaintsuak, bakartiak, handiak, hermafroditak eta ikusgarriak dira.

Poliki hazten da eta espezie bakarti moduan erabiltzen da, batik bat, nahiz eta urte asko behar izan ale bikain bat lortzeko. Forma piramidalekoak taldetan ere ikus ditzakegu.

Jatorrian, hau da, Estatu Batuetako hego-ekialdean, bere egurra oso estimatua izan arren ebanisterian eta aglomeratuak eta papera egiteko erabili arren, Euskal Herrian magnolia apaingarri gisa landatu den espeziea da, eta ia herri guztietako lorategi eta parkeetan aurki genezake zuhaitz apaingarri gisara. Bergaran, Olaso Dorrekoa zuhaitz singularren barruan dago klasifikatuta, duen edertasunagatik.

*“Landare loredunen artean, magnolia da familia zaharrenetakoa”*



EDU MENDIBIL



**TABERNA**

Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69



**ARRI**  
Industri hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tf. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.



**GONZALEZ CUESTA**

olio-erakusketa

2001eko azaroaren 5etik 25era

NAHIKARI taberna.  
Masterreka 20. Bergara.  
Tf. 943 76 57 71





BERGARA  
**Iosu Diaz**  
17an 7 urte. Urte askotarako! Alatz, Ibon, Mariñe eta etxeokak.



BERGARA  
**Kariñe Diaz**  
17an 3 urte. Urte askotarako! Iosu, Alatz eta Ibon.



BERGARA  
**Maitane Juaristi**  
20an 4 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



BERGARA  
**Jon Perez**  
22an 5 urte. Urte askotarako! Gurasoak.



BERGARA  
**Pedro Narbaiza**  
17an urtebetezea. Urte askotarako! Etxeokak.



BERGARA  
**Sara Mancho**  
20an 4 urte. Urte askotarako! Gurasoak, lagunak eta Ruth.



BERGARA  
**Martin Telleria**  
17an 4 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



BERGARA  
**Pedro Jose De Oliveira**  
17an 12 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



BERGARA  
**Mikel Gallastegi**  
18an 4 urte. Urte askotarako! Familiakoak; bereziki, Garazi.



BERGARA  
**Maria Gurrutxaga**  
19an 92 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



BERGARA  
**Ainhoa De Marcos**  
20an 7 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



BERGARA  
**Oihane Arazkonaga**  
22an 8 urte. Urte askotarako! Familiakoak, Ander, Nerea eta Laura.

BABESLEA

**Kiñu**  
argazkilariak

Barrenkalea 35  
Tel. eta faxa:  
943 76 58 05

**Adi!** Hurrengo zenbakian, azaroaren 23tik 29ra bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

## Zorionak, antzuolarrok!

Antzuolan zuen zorion agurretako argazkiak\* eta datuak emateko liburutegira jo dezakezue:

**astelehenero, 17:00etatik 18:00etara.**

**MUSU-TRUK!**

## Zorionak, elgetarrok!

Elgetan zuen zorion agurretako argazkiak\* eta datuak emateko Erosle-Baltxungora jo dezakezue:

**zapaturo, 09:00etatik 13:00etara.**

**MUSU-TRUK!**






**ZINEMA ETXEAN**  
Teknologia aurrerakoiena zure esku

# Herran

## **SUKALDEKO ALTZARIAK**

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4  
943 76 37 53



## **ELEKTRIKAKO TRESNAK**

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22

Bergarako merkatariok adi!

# Zuen iragarkia

# GOITBn agertzeko aukera paregabea!

Spotak • Miniespotak • Teletestua • Gaininpresioak

Deitu 943 76 03 97  
telefonora!

**Goitb**  
Goiena Telebista



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 16a / 90. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Aste bukaeran, argazki irabazleen erakusketa Udaletxeko pleno aretoan

AINTZANE IRIZAR

Argazki lehiaketako irabazleen izenak jakinarazi zituzten martitzenean. Ibai Zabalo eta Nagore Igartza izan dira irabazleak, bakoitza bere mailan. Hirugarren mailan ez dute lehen saririk eman. Asteburuan, erakusketa egingo dute argazki guztiekin.

Urriaren 11n amaitu zen argazki lehiaketara aurkezteko epea. Guztira 30 argazki aurkeztu ziren. Hiru maila egin zituzten antolatzailak: 14 urte artekoak, 15 eta 25 urte artekoak, eta 26 urtetik aurrerakoak. Antzuolako Juan Kruz argazki dendako Mari Paz Ugaldek eta Bergarako Kiñuko Juanje Amasorrainek osatu dute aurtengo epaimahaia.

Lehen mailan, gaztetxoenen mailan, Ibai Zabalo 10 urteko mutikoari eman dio lehen saria epaimahaiak, *Palmerak* lanagatik. Ibaik opari bat jasoko du Udaleko arduradunen eskutik. Bigarren saririk, berriz, ez dute eman, hutsik geratu da. Aipatzekoa da, bestalde, parte hartzaile bat lehiaketatik kanpo geratu dela hiru argazki kartoi mehe bakar batean aurkeztu dituelako, eta oinarrietan ez zelako horrelakorik onartzen.

Bigarren mailari dagokionez, 15 eta 25 urte bitarteko maila, Nagore Igartzaren *Ni ez naiz zuri beltzeko* argazkiak irabazi du lehen saria, eta 25.000 pezeta jasoko ditu. Bigarren saria, 15.000 pezeta, Maite Telleriaren *Sua*



Nagore Igartza bigarren mailako irabazlearen *Ni ez naiz* argazkia.

argazkiari eman diote. Bi sari horiez gain, aipamen berezia egin nahi izan dio epaimahaiak Alaitz Jauregik aurkeztutako *La Gualupana* argazkiari, epaimahaiakideen esanetan, "halaxe merezi zuelako".

### NAGUSIEN ARTEAN, KALITATEAK BEHERA

Epaimahaiak lehen saririk ez ematea erabaki du hirugarren mailan, 26 urtetik aurrerako mailan. Beste urte batzuetan baino argazki gutxiago aurkezteaz gain, kalitateak ere nabarmen egin ei du behera, epaimahaiki-

deen iritiz. Bigarren saria, hala ere, eman dute: Iñigo Ramírez de Okarizen *Ortzadarra ilunabarrean* izeneko argazkiarendako izan da.

### ERAKUSKETA ASTEBURUAN

Bihar, zapatua, goizean zabalduko dute erakusketa Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta domekan ere zabalik izango da. Goizetan, 11:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai; arratsaldetan, berriz, 19:00etatik 20:30era. Aurtengo argazki lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak, egon-

go dira ikusgai Udaletxean, 30 argazki guztira.

### SEIGARREN ALDIA

Aurtengoa Udalak argazki lehiaketa antolatzen duen seigarren aldia da. Hasiera baten, oporraldietako argazkien lehiaketa izaten zen. Izan ere, irailean egin ohi da deialdia, eta oporretatik bueltako garaia da. Duela urte batzuetatik hona, baina, gai librean izan dute parte hartzaileak. Lehiaketa honekin, herritarren artean argazkigintza bultzatzea izan da Udaleko arduradunen helburua.

## LABUR

### Euroari buruzko hitzaldia datorren martitzenean

Hurrengo martitzenean, azaroak 20, euroari buruzko hitzaldia egingo du Juan Ramon Zurutzak Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Hitzaldi horretan euroak ekarriko dizkigun aldaketa guztien berri emango digu Zurutzak.

### Pilota txapelketako partiduak jokatu dira bihar, zapatua

Bihar, zapatua, Olaldeko antolatuta, herriko eskuz binakako pilota partiduak jokatu dituzte. Goizez, 09:00etan hasita, bigarren mailako sei partidu jokatu dituzte. Arratsaldean, bestalde, lehen mailako bikoteen arteko bi partidu izango dira, 15:30ean hasita.

### Ipuinen ikastaroa bihar, zapatua, hasiko dute

Martitzenean bukatu zen ikastaro honetan izena emateko epea. Gogora ezazue bihar, zapatua, hasiko dela ipuinak zelatik kontatu ikasteko ikastaroa. Virginia Imazek eskainiko du. Hiru zapatutan izango da: bihar, azaroaren 24an eta abenduaren 15ean.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89

GoRoSTi

Taberna

943 76 62 96  
Zurrategi plaza  
ANTZUOLA



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA/LARRIALDIK**  
 DYA ..... 943 78 71 57  
 Gurutze Gorria..... 943 76 55 76  
 Medikua ..... 943 76 62 23  
 Praktikantea ..... 943 76 63 80  
 Udaltzaingoa..... 943 76 62 46  
 Ertzaintza ..... 943 76 53 40

**UDALA**  
 Udaletxea ..... 943 76 62 46  
 Liburutegia ..... 943 76 60 65

**BESTELAKOAK**  
 Idolaz ..... 943 78 60 12  
 Herri ikastetxea ..... 943 76 62 68  
 Jubilatuen elkartea..... 943 76 62 71  
 Abadetxea ..... 943 76 64 16  
 Anelkar (Kontxi)..... 943 78 70 65  
 Taxiak:  
 Antonio Fernández..... 669 15 65 40  
 Jesus M. Fernández ..... 607 31 85 60

**MEZAK**

**ANTZUOLAKO PARROKIA**  
 Lanegun eta zapatuetan: 19:30  
 Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30  
**UZARRAGAKO PARROKIA**  
 Domeka eta jaiegunetan: 10:00

**OHARRAK**

**ABIZENEN GRAFIA EUSKARAZ**

Euskal abizenak, askotan, gaztelera-ko grafiaz izaten ditugu agiri ofizialetan. Euskal grafiaz jartzeko, baina, badago aukerarik. Horretarako interesa duenak, Antzuolako erregistro zibilera jo behar du, eta honako agiriak eramán: jaiotza-ziurtagiria, errolda-ziurtagiria eta nortasun agiriaren fotokopia. Erregistro zibila udaletxean dago, eta eguenetan egoten da zabalik, goizeko 9:00etatik 14:00etara.

**AKATSAK ZUZENTZEN**

Joan zen asteko alean, zorion-agurrak zapatu goizetan Antzuolako liburutegian laga ditzakezuela esan genizuen. Geure oker bat izan zen, zapatu goizetan itxita egoten da-eta liburutegia. Beraz, astelehenetan izango duzue zuen zorion-agurrak liburutegian lagatzeko aukera, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

**BASERRIZBASERRI/ Ugartetorre**



**JAURETXE EDERRA** Kaletik 500 metrora dago, Lizarraga auzoan. 1391koa da baserriaren lehen aipamena. Pero Ugarte bizi zen hantxe. Baserri ikusgarria da, XVII. mendeko jauretxea. Oñatiko Protokolo Artxiboko dokumentuen arabera, XVII. mendean bi Ugarte zeuden, Ugarte-Zaharra eta Ugarte-Jauregia, eta baita errota bat ere, gero Txanbolin baserri bezala ezagutu zutena. Armarría ere badu, bi otso zuhaitz baten gainean zutik azaltzen dira bertan. Hiru etxebizitzako baserria da, eta honakoak bizi dira: baten, Isidro, Jose eta Remigio Zabaleta; beste baten, Lierni Legorburu eta Oier Bideluze; hirugarrenenan, azkenik, Peio Legorburu, Mari Beni Larrea eta Maialen eta Onintza Legorburu. /IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

**HERRITARREN HITZA/ Iñigo Ramirez de Okariz · Irakaslea**

*Igeldon ere gaztelera-az*

**S**arritan entzun behar izan dugu Euskadiko Erkidegoan ofizialak diren gaztelania eta euskara erabileraren inguruan eztabaidak, batez ere euskararik jakin ez eta han eta hemen baztertuta sentitu izan direlako.

Aspaldian Igeldora joan barik geundenez, Domu Santuko asteburu luzean, guraso eta seme-alabok haraxe joan ginen. Hala ere, eguraldi zoragarri hartan berehala hodeiak sumatu nituen, Aquariumera sartu eta sarreran zegoen neska polit batek lehen hitza gaztelaniaz eman zigun-eta.

Arratsaldean, Igeldora joateko funikularra hartu, eta bidean gaztelania bakarrik entzun genuen, baita gurasoek seme-alabei ere.

Goian, Suitzar mendirako sarrerak hartzerá joan nintzen; euskaraz egin orduko, “¿Qué me has perdido?” erantzunarekin saltzaileak lur jota utzi ninduen.

Beste zerbitzu bat, eta beste



**“Umeek inpresioa dute Antzuolarako bakarrik balio duela euskarak”**

bat... dena gaztelaniaz. Are gehiago, ur gainean ibiltzen diren untzitxoeren sarreran ere, “Prohibido sacar las manos” iragarkia, besterik ez. Jakina, gurasoei begira, umeek ikastolan ez dutenez gaztelaniaz ganoraz ikasten!

Okerrena izan zen, ez dakit lotsaz edo etsipenez, handik aurrera nik ere gaztelaniaz egiten nuela. Norbaitek esan zuen

Donostian zerbitzu arloan euskaraz egitea bezeroak galtzea zela. Egia esanda, niri behintzat, gaztelania hutsean egin didatelako gogoa joan zait Donostiako hainbat zerbitzu erabiltzeko. Eta okerrago dena, gure seme-alabek inpresioa dute euskarak Antzuolan bakarrik hitz egiteko balio duela. Beraz, Erkidegoan bermatzen den hizkuntza bakarra gaztelania da.

Eta errudunak ez dira politikoen artean aurkitu behar, nahiz eta sarridan ematen diguten irudia onena ez izan. Beraz, nor baztertuta?

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**Igor eta Txomin**



Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131 BERGARA 609 150 164



*Juan Cruz*

**ARGAZKIAK**

Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak

**BITXITEGIA**

Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak

Herriko plaza. = 943 78 70 66. ANTZUOLA



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko azaroaren 16a / 75. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Bide seinale gutxi zeudela-eta, martitzenean istripua gertatu zen

OXEL EROSTARBE

Plaza ondoan konpondu duten estolda adierazten zuten seinaleak nahikoak ez zirela eta, istripua izateko arriskuan izan ziren Elgetatik igaro ziren gidari asko. Istripu larriena martitzenean gertatu zen, nahiz eta gidariari ez zitzaion ezer gertatu.

Herriko sarreretan egindako konponketen ondorioz asfalto azpian geratu zen estolda errepidearen maila berean jartzen aritu ziren astelehenean Diputazioko langileak.

Porlana lehortu artean, bost konoz eta argia ematen duen adierazleaz inguratu zuten estolda. Diputaziotik esan digutenez, modu horretan adierazten dituzte bidean egoten diren estoldak.

Bergararik zetozen gidariak oso metro gutxi arte ezin zituzten konoak ikusi. Konoak bide erdian zeudenez, zenbait istripu izan ziren astelehen eta martitzenean. Auto batek azpialdean kalteak izan zituen eta beste asko zorian izan ziren.

### 11 HILABETEZ ITXITA

Eibar-Gasteiz autobideko lanak



Begararik zetozen gidariak oso metro gutxi arte ezin zituzten konoak ikusi; ezin ukatu istripuak gertatzeko arriskua zegoela.

direla-eta, eguaztenetik itxita dago Bergarako bariantea eta Elgetara doan GI- 2632 errepidea lotzen dituen errepide zatia. Uberako zubibidea egiteko, derrigorrezkoa da errepide zati hau moztea.

Eibartik Bergarara doazen ibilgailuak, Elgetara igo ahal izateko, Bergarako iparraldeko sarreatik sartu beharko dira eta gero, gasolindegia parean, zubi azpitik igarotzen den GI- 2632 errepidetik

aurrera jarraitu. Elgetara igotzeko ez da, hortaz, inolako arazorik egongo.

Lotura egiten duen errepide zatia hamaika hilabetez egongo da itxita.

## HERRITARREN HITZA / Haritz Gallastegi • Kazetaria

### Denboraren indarra

**N**euere buruko ideiak ordenatzen nahikoa behar nuelako... besteak beste, ez nuen agurtzeko aukerarik izan GOIBEKOKALE "zaharraren" azken alean. GOIBEKOKALE "berrian" emango dizuet ordurako egin nuen hausnartaren berri.

Normalean gustuko ditugun gauzak egin ahal izateko joaten gara lanera. Zenbait gizasemek, ordea, beharretik irtendakoan ere "lanean" jarraitzen dute. Batzuek, gehienek, euren inguruari ekarpenen bat egitea

dute xede; beste batzuk, euren etorkizunerako baliagarria izan daitekeelakoan murgiltzen dira proiektu ezberdinetan —neure kasua—; besterik barik, arrazoi ideologikoak bultzatuta jarduten dutenak ere makina bat daude.

Arrazoi bat edo bestea dela ere, behin lanean hasitakoan pertsona guztiak barruan



**"Denborarekin jende asko kiskaliko dela badakit"**

gehiago baloratzen ikasi dut. Elgetan, zorionez, herri

daramaten guztia eskaintzen saiatzen dira, betiere borondate onenarekin —sekula ez dut bestelakorik pentsatu—. Horrenbestez, behin herri mailako proiektu bat barrutik ezagutu ostean, hainbat elkartetan burubelari lanean dabilzan lagunaren ahalegina are

ekimena nahiko uztarturik dagoela uste dut. Gazte, kirolzale zein beste elkarrekin ekarpenak ezinbestekoak dira herria aberasteko. Horretarako, beharrezkoa da talde guztien arteko hartu-eman. Baita Udalaren inplikazio maila ere. Guztien artean atera behar ditugu egitasmoak aurrera. Era bateko eta besteko ekimenak oztopatuz ez goaz inora —orokorrean ari naiz—. Trabak ipinita, ez dugu ezer lortuko, ezin dugu horrelakorik onartu. Badakit denboraren poderioz jende asko kiskaliko dela.

## LABUR

### Kiroldegia zabalduko dute gaur 19:00etan

Atzo gas frogak egin eta gero, bukatu dira kiroldegiko tabernan egiten ziharduten lanak.

Antxon, Iontxi, Asier eta Ander dira Bolatokiko ugazaba berriak, eta gaur iluntzeko 19:00etan irekiko dute taberna.

Donostiakoak dira gazte hauek, eta orain arte, oso gustura daude Elgetan aurkitu dutenarekin.

Gaur, 22:00ak inguru arte edukiko dute taberna zabalik eta bihurtik aurrera hasiko dira eguneroko jardunarekin.

### 'La Garbo S.A.' antzezlanerako sarrerak salgai

Kultura batzordeak antolatuta, Markeliñe taldearen *La Garbo S. A.* antzezlanaren ikuskerako aukera izango dugu datorren barikuan. Gaueko 22:30ean hasiko da antzerkia. Espaloia aretoan izango da.

Sarrerak aurrez gorde nahi duenak badauka aukera. Udaletxerari joan eta Enrike Gorrotxategirekin egon beharko du, edo bestela zuzenean Udaletxerari deitu 943768022 telefono zenbakira. Sarrerak 500 pezetan balio du.

### DV Txapelketako pilota partidak datorren barikuan

Azaroaren 23an, gaueko 21:30ean, DV Txapelketako partidak izango dira Elgetan.

Gazte mailan Berasaluzek eta Pradok Sáez eta Rico errioxarrak izango dituzte aurkari. Nagusietan Ubera II.ak eta Laskurainek Amerika eta Atutxaren aurka jokatuko dute. Xabierrek partida honekin hasiko du aurtengo txapelketa. Ez da partida erreza izango, aurrekoan ondo aritu ziren-eta aurkariak.

Sarrera doan izango da, eta bi lagunendako afaria zozketatuko dute.



## IRAKURLIAREN TXOKUA

### GAZTETXIAK "KRITIKEI ERANTZUNEZ" EGINDAKO KARTAREN EGILLIEI:

Belaunaldi artian hartu- emona garrantzitsua dala esan neban, beste aparteko barik. Titulua erakargarri- xa egittia "Gaztetxiak jubilauendako" artikulua egilian lana be bada... eta nago erantzuna jasotzeko arrazoia Asentzio Eguna aipatzian ete dagon. "...6 urtian ahalik eta onduen antolatzen saiatu gaz..." diñue eta hori iñok ezin kendu, denbora dexente emon dotsagu eta jaixai.

Denbora faltia dala eta Asentzio eguna beste batzuk antolatzea bada Gaztetxiak dittuan gaitzen irtenbidia, espero dot gura beste hitzaldi, antzerki, erakusketa, irteera, ikastolen aldeko autobus... antolatzea lehenbailehen.

Gehixau zer esan... Iban Arantzabal berez dala kritikua baita bere buru- kin be, baina Gaztetxekume honen idatzixak ez zekala holako kritikotasunik. Aspaldi erakutsi zosten etxe barruko trapu zaharrak etxian gordetzen.

Kritika egin gura izan balitza zuok dakizue onduen Gaztetxiak nundik ebatu badakala. Eta nundik ebatu badakanez "kriti- kok", zuek eguna zehaztu ez dozuen bigarren eztabaida irekixan egingo dittut.

Beti egon dira kritikak, goguan dakat kritika danak ontzat hartzen giñuazela geruago eta gehixau ziran ekintzen baloraziñuak ziralako normalian. Kriti- kak mobitzen danari egitten jakoz eta hori ona da, beti!

Amaitzeko, animo gaztetxiak egin biharreko herrigintza lan neketsuan eta helburuak betetzeko bidian. Gaztetxia, Elgetan, ondiok be biharrezkua da. Gure Gaztetxiak urte askuan egin dotsa bultza herrixan erren zeguan hainbat arlori eta horregai- ttik jaso dau herrixan bultzadia be. Elkarri bultza egitten jarraituta ez dago bildurrik ezta defenditzen ibilli biharrik be.

Berriz be animo!

IBAN ARANTZABAL

### IRAKURLIAREN TXOKUA

Goibekokalen zure gutuna argitaratzia nahi izanez gero, Goibekokaleko buzoian laga edo goibekokale@goinea.com helbidera bialdu.

Beti be, martitzen goiza aurretik bidaltzia komeni da.

## BANAKETA

### Elurrak ez zuen eragotzi Goibekokale eta Goienkaria Elgetara heltzea

O.E.

Bidean gurutzatuak zeuden kamioiak, elurra eta izotza ez ziren oztupo izan Goibekokale eta Goienkaria Elgetara iristeko. Afaldu aurretik etxe gehienetan banatua zegoen alea. Banaketan izan zen akats baten ondorioz ordea, ez zen Elgeta guztian Goibekokale banatzeko aukerarik izan.

Aurrerantzean, Iratxe eta Sandra arduratuko dira Goibekokalaren banaketaz. Etxean ez baduzue Goibekokale jasotzen, 943 78 90 85 telefonoan jarri zaitzekete banatzaile berriekin harremanetan.

Goibekokale Elgetatik kanpo jaso nahi dutenek ere badaukate aukera. Gurekin harremanetan jartzea besterik ez duzue.



IBAN ARANTZABAL

## BAPATEKUA/ Rakel Urien · Supermerkatuko langillia

### "Poltsikoko telefonua biziua da neretzako; behin, sei ordu t'erdi egon nintzan geratu barik berbetan"

**B**ergaran egitten dau lan 26 urteko honek elgetarronek. Lotan baiño, denbora gehixau pasatzen dau poltsikoko telefonotik berbetan.

#### Zertan diharduzu lanian?

Bergarako supermerkau batian, Tandyn.

#### Zer da zure lanetik gehixen atsegin dozuna?

Denbora danian jendiakin hartu-emonian nagola.

#### Bestela, zertan egingo ziñuke lana gustora?

Irratixan esatari. Jendiak deitzen daben gabeko programa horretako batian.

#### Erosketak egitteko denda txikixak ala leku haundixak?

Leku haundixak.

#### Zenbat ordu egitten dozu lo?

Astegunez lau bat eta asteburutan bapez, denbora dana juergan.

#### Maitteminddu ziñan azken aldixa?

Maitteminddu-maitteminddu, urte bete dala edo maitteminddu nintzan. Oso maitakorra naiz eta konfiantza apur bat emon ezkerro, sentimendu txikixak sortzen dira sarritan.

#### Gorputzeko atalik polittena?

Aurpegixa (galdetzen moduan).

#### Poltsikoko telefonua erabiltzen dozu?

Apurtuta daukat, baiña poltsikoko telefonotik berbetan orduak pasatzen dittut, bizio bat da. Jarraituta sei ordu eta erdi egindakua naiz.

#### Diskotekak ala poteua?



Duda barik, diskotekak.

#### Juerga egitteko herri gustokuena?

Donostia.

#### Zenbat euro dira 1.000 pta.?

Sei (segittuan erantzun dau).

#### Kirolik gustokuena?

Gimnasia erritmikua.

#### Elgetako paraje polittena?

Intxorta.

#### Oherako erropak ze kolorekuak dakazuz?

Neguan sedazkuak eta udan motzak, zurixak.

#### Gaba ala eguna?

Gaba.

#### Irratixa ala telebista?

Irratixa, Top 40 programa oso gustokua dot.

#### Elgetako mutillak zelan definiduko ziñuke?

Basarritarrak edo kaikuak.



Elgeta-Piel

Neguko denborealdi berria

Astelchenetik barikura:  
17:00-20:00

Zapatuak:

10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA  
943 76 81 12

## Uriburu UTEK saltzen du:

Domingo Iturbe kalean

**ETXABE KOMERTZIALA**

Etxe berrien azpian

**PREZIO INTERESGARRIAK**

**943 76 11 23**

**670 781 759**

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi  
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**20690 ELGETA**



## ERRETRATUZAHARRA

## Udaletxeko lehenengo harrixa Elgetan

**G**erriak ziharo hondatua laga zittuan Elgetako eraikin gehixenak. Frentia herrixan bertan egotia ez zotzan Elgetari onura haundirik ekarri, herrixa egoera txarrian geratu zan-eta. Txikittuta geratu zan eraikiñetako bat Udaletxia izan zan. Goitik behera barritu bihar izan zebeñ.

Oingo alian ekarri dotsuegun erretratu zaharra gerra ostekua da, Udaletxe barriko lehenengo harrixa jarri zebenekua, hain justu. 1944ko apirillaren 25ian jarri zebeñ hori harrixoi. Egin zan ekintza ofizialera Gipuzkuako gobernadoria eta haren laguntzaillia etorri ziran, nahiko egun berezixa izan zan.

Erretratuan ikusi geinken moduan, *Cara al sol* kantuan dihardue ekintza ofizialian parte hartutako guztiek. Ezin izan dogu asmatu erretratuan agertzen diranak zeintzuk diran. Ezkerraldian darenak autoridadekuak dira, eta gobernadoria hor bertan dago.

Eskumaldian herrittarrak ikusi



geinkez. Aurreko aldian darenak lehenagoko aguazilla eta abadia ei dira; atzeko aldian elgetar batzuk agertu arren, ezin izan dogu jakin zeintzuk diran.

**Argakia:** Tolosako artxibua, Indalezio Ojanguren Fondoa

### ADI IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

### Udaletxia gerra aurretik eta gaur egun

**E**rretratu zaharrian gerriak eragindako kaltiengaittik Udaletxia barritu bihar izan zala esan dogu.

Alboko erretratuetan, Udaletxiak eta plaziak gerra aurretik zeukan itxuria eta konponketak egin eta gero hartu zabana ikusi geinke. Lehenagoko eraikiñetako balkoiak txikixagoak ziran eta, kristalerak zeuzken.



**1934** Mendizalien Federaziñua Elgetan sortu zala-eta, mendizale ugari batu izan ziran urte honetan plazan. Plazia oso aldatuta ikusi geinke.



**2000** Gaiñeko erretratuan, gaur egun Udaletxiak eta plaziak dauken itxuria ikusi geinke. Gauzak asko aldatu dirala ezin ukatu.

**Zumelaga**  
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**Zuri Beltz margoak**

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara



**Manufacturas LARRAÑAGA**

• Lan-babeserako artikuluak  
• Seinalaztapena  
• Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA  
Tf. / faxa 943 76 59 53.



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25  
BERGARA





3.000.000 ibilgailu baino  
gehiago aseguratuta  
lasai-lasai errepidean

# Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



**MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

**Azaroaren 5eko zozketa:**  
24.000 pezetako 3 erosketa-bono

**72.000 pta.**

**Sarituak:**

Marian Agirrebeña  
Ana Mari Madariaga  
Ana Mari Urzelai  
**Zorionak hiruroi!**



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





Sofa  
leku

Oso  
eroso.



grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**

a. eme. interiores  
a. eme. sukaldeak  
centro hogar mueble  
sofa leku

- Tel.: 943 79 15 03
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 71 10 12
- Tel.: 943 77 14 92

[www.grupo-aeme.com](http://www.grupo-aeme.com)

[grupoam@grupo-aeme.com](mailto:grupoam@grupo-aeme.com)